

Jaten ematea bezain garrantzitsua da haur txikiei 'irakurtzen ematea'

DV. Irakurtzen ez dakiten ume txikiek ere aprobetxatu ditzakete irakurtzearen onurak. Horixe da Galtzagorri Elkarteak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaz, modu esperimentalean bada ere hurrengo hilabeteetan hainbat herritara zabalduko duen Bularretik mintzora egitasmoaren helburua.

Izena Juan Kruz Igerabideren liburu batetik hartu duen kanpainak 0 eta 6 urte bitarteko haurren osoko garapena du gogoan. Galtzagorri Elkarteak buru eta egitasmoaren zuzendari Itziar Zubizarretak Eusko Jaurlaritzako Arantza Arzamendi eta Galtzagorriko Izaskun Jauregirekin batera egin zuen kanpainaren aurkezpenean azaldu zuenez, haur bati 'irakurtzen ematea' jaten ematea bezain garrantzitsua da. 'Irakurtzen ematen' diogunean haurraren garapen intelektuala, emozionala, soziala eta hizkuntzarena estimulatzeko ditugu eta, horrez gainera, emozionalki ongi sentiaraziko diogu tentsioak lasaitzen dituelako, beldurrak uxatzen dituelako eta gozamenak sentitzen dituelako maite duen heldu horrekin momentu goxo, zoragarri eta magiko bat pasatuz, esan zuen.

Sehaska kantak abestuz, jolas kutsuko errimak errepikatuz, ipuin bat kontatuz edota poesia bat irakurri ematen zaio alegia 'irakurtzen' idatzizko mundutik urrun dagoen haurrari eta irakurzaletasunaren arrastoan jartzen da, letrak menderatzen dituen momentuan literaturarekiko eta irakurketarako zaletasuna aurretik piztuta.

Etxea, eskola, liburutegia

Euskal Herrian gauza berria bada ere, beste herrialde batzuetan aspalditxo hasi ziren ildo hori lantzen, eta kanpoko esperientziak ere baliatu ditu Galtzagorriak, bereziki Kolonbiakoa eta Kataluniakoa. Bularretik mintzora egitasmoak Tolosan egin zituen aurreneko urratsak iazko abendutik aurtengo apirila bitartean, eta bertan egin da protokoloaren lehen froga. Esperimentala izaten jarraituko du ekimenak hurrengo hiletan, eta Tolosatik Oñati, Ermua, Iurreta eta Amurriora zabalduko da. Esperientzia pilotuetan ikasitakoari esker zeharo finkatutakoan, interesa duten udalerririk guztietara zabaldu ahal izango da egitasmoa.

Adin horietako haurrek bizimodua non egiten duten kontuan izanda, hiru egoitza nagusi identifikatu dira programa garatzeko: etxea, eskola eta liburutegia. Hartara, hiru eremu horietara egokitutako material eta estrategiak sortu eta garatu dira, gurasoak eta irakasleak protagonista bilakatuz eta zerbitzu gehienak liburutegietan zentralizatuz.

Liburutegietan, besteak beste, gurasoei eta irakasleei zuzendutako formazio hitzaldiak eskainiko dira, Juan Kruz Igerabide poeta, Juan Karlos Alonso

psikologoa, Pello Añorga ipuin kontalari eta idazlearen eta Itziar Zubizarreta irakasle eta narratzailearen eskutik.

Aurrez aurreko ekitaldiez gain, material ugari prestatu dira: irakasleei eta gurasoei zuzendutako gomendiozko foiletoak; liburutegitik etxera liburuak maileguan eramateko maleta modukoak; hiru guneak liburu baten bitartez lotuko dituzten motxila txikiak; laster abian izango den web gunea eta atzo bertan aurkeztu zen Bularretik mintzora liburu-diskoa. Bertan, galtzeko arrisku bizioan dauden euskal kanta, poema eta ipuinak bildu dira, gurasoek haurrekin batera erabil ditzaten.

Ondare horren galera ekiditeko euskarazko materialei eman zaie lehentasuna, eta idatzizko euskarri guztietan euskara hobetsi da, baina euskara menderatzen ez duten gurasoentzat ere badaude baliabideak, besteak beste edozein hizkuntzatan erabilgarriak izan daitezkeen irizpideak ematen baitzaizkie.

KANPAINA

Antolatzaileak: Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura Elkartea eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila.

Osagaiak: Bularretik mintzora liburu-diskoa; liburuak maileguan hartzeko 'maleta'; gurasoentzako hitzaldiak eta irakasleentzako ikastaroak; liburu gomendagarrien zerrendak; laster, web gunea.

Hedapena: Aurreneko urratsak Tolosan egin ostean, esperientzia pilotu bezala Iurreta, Ermua, Oñati eta Amurriora zabalduko da 2009ko apirila bitartean. Helburua interesa duten herri guztietara heltzea da.